

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTZIEGOKO UDALA

#### **Onestea 2020rako aurrekontu orokor bateratuaren gaineko kredituen judizioz kanpoko aintzatespena**

Lantziegoko Udalak, 2020ko apirilaren 14ko premiazko bilkura berezian, erabaki du onartzea 2020rako aurrekontu orokor bateratuaren gaineko kredituen judizioz kanpoko aintzatespena. Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritz, erabaki hori argitaratu egiten da. Judizioz kanpoko kredituen aintzatespena onesten duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera. Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Lantziego, 2020ko apirilaren 20a

*Alkatea*

*ITZIAR DE ÁLAVA MARTÍNEZ DE ICAYA*